# DIBULGAZIO ARTIKULUA SORTZEKO URRATSAK

**Jarrai itzazu honako urratsak artikulua osatzeko**

## 1. NOLAKO EGITURA EDUKI BEHAR DU ARTIKULUAK?

Gogoratu sortu beharko duzun artikuluak honako egitura eduki behar duela:

- **IZENBURUA:** Erakargarria eta artikuluaren mamiari lotuta.
- **EGILEA(K):** artikulua nork idatzi duen eta zein den bere kargua
- **SARRERA:** Artikuluaren gaia edo helburuari aipamena egin
- **GAIAK edo AZPIGAIAK:** egin behar diren edo ez baloratu.
- **PARAGRAFOAK:** Gidoiaren galdera eta erantzunak lotuz esaldiak paragrafoetan antolatuz
  - Paragrafoen kopurua eta ordena zein den aurreikusiz
  - Paragrafoen artean lotura dagoela bermatuz (testu antolatzaileak…)
- **ARGAZKI edo IRUDIAK**: Esanguratsuak eta beharrezkoa bada azalpena daukatena. Norberak sortutakoak edo bilatutakoak.
- **AZKEN ONDORIOA:** beharrezkoa bada
- **BIBLIOGRAFIA** edo **INFORMAZIO ITURRIAK**: dokumentazioa eta irudi eta argazkien jatorria

Behatu eredu moduan **Elhuyar aldizkarian Unai Baroja Ibañez de Maeztu biologoak argitaratutako artikulua** aurreko atalak identifikatzeko

ARTIKULU EREDUA

## 2. ZERTARAKO SORTU NAHI DUGU ARTIKULUA?

Egoeraren testuinguruaren azalpena irakurri eta galderari erantzun:

| | |
|---|---|
| Zertarako sortu nahi dugu artikulua? | |

## 3. ZER INFORMAZIO DUGU ARTIKULUA OSATZEKO?

Artikulua osatzeko **informazio euskarri** nagusiaren **irakurketa egin paragrafoka** eta paragrafo bakoitzean **identifikatu, ideia nagusiak**. honako bi galderen erantzunei erantzunez:

**1)** Zeri buruz ari da? **2)** Zer dio hori buruz?

| 1. paragrafoa | |
|---|---|
| **Zeri buruz ari da?** | **Zer dio horri buruz?** |

| 2. paragrafoa | |
|---|---|
| **Zeri buruz ari da?** | **Zer dio horri buruz?** |

| 3. paragrafoa | |
|---|---|
| **Zeri buruz ari da?** | **Zer dio horri buruz?** |

| 4. paragrafoa | |
|---|---|
| **Zeri buruz ari da?** | **Zer dio horri buruz?** |

| ... paragrafoa | |
|---|---|
| **Zeri buruz ari da?** | **Zer dio horri buruz?** |

## 4. GIDOIA. ZER KONTATU NAHI DUGU?

Artikulua osatzeko bidean **gidoiaren galderak erantzun**. Horretarako:

- Kontutan hartu aurreko atalean jasotakoak.
- Erantzunak osatzean, **erantzunean ere galdera integratu.**
- **Erantzun batzuk baliabide matematikoak mobilizatzea eskatzen dute. Horiek aparteko dokumentu batean edo baliabidea erabiliz (GeoGebra adibidez) sortzen badituzu, estekak ere txertatu**

| GIDOIAREN GALDERAK | **ERANTZUNA (kanpo dokumentu batean badago erantzuna esteka txertatu)** |
|---|---|
| 1. | |
| 2. | |
| 3. | |
| 4. | |
| 5. | |
| 6. | |
| ... | |

## 5. ZER IZENBURU JARRIKO DIOGU ARTIKULUARI?

Gidoiaren galderak erantzun ondoren proposatu artikuluarentzat izenburu bat. Kontutan izan **izenburuak**, batetik, **gaiarekin** erlazioa izan behar duela, eta, bestetik, **deigarria izan behar dela**, irakurlearen arreta bereganatzeko.

| Artikuluaren izenburua | |
| --- | --- |

## 6. ZER AZPI-IZENBURU JARRIKO DIOGU ARTIKULUARI?

Baloratu azpi-izenbururik jarri behar diozun artikuluari. Kontuan izan **azpi-izenburua**, izenburuaren jarraipena dela eta informazio eta azalpen gehigarria emateko helburua duela.

| Artikuluaren azpi-izenburua | |
| --- | --- |

## 7. SARRERA. ZEIN DA KOMUNIKATU NAHI DEN ARTIKULUAREN HELBURUA? ZERI BURUZ ARI DA? NOLA OSATUKO DUGU SARRERA?

Sarrerak, artikuluaren gaia edo/eta helburuari aipamena egingo dio.
Idatzi artikuluari dagokion sarrera:

| Artikuluaren sarrera | |
| --- | --- |

## 8. EGITURAREN ANTOLAKETA. NOLA GARATUKO DUGU ARTIKULUA?

- Baloratu Informazio edo euskarri gehiago eskuratu ditzazkezuen **artikulua aberasteko (informazioa, argazkiak…)**

- **Aurreikusi artikuluaren egitura.** Horretarako:
  - Gogoratu **1. puntuan azaldutako artikuluaren egitura.**
  - **Ordenatu gidoien galderen erantzunak** artikuluko kontakizunaren arabera eta aurreikusi horien araberako paragrafoak.

- Aurreikusitako egituraren arabera, erabaki artikuluan **gai eta azpigairik** egongo ote den edo ez.

- **Idatzi** artikuluaren **testu zirriborroa** eta horretarako:
  - Aurreko ataletan erabakitakoa bildu.
  - **Ideien arteko eta paragrafoen arteko loturak** ezarri (testu markatzaileak kontutan hartu lan horretarako).
  - **Aditzen kohesioa** kontutan hartu (aditzak erabili testu zatiak denboran kokatzeko eta zer pertsonan hitzegiten den (1. pertsonan, 3.pertsonan) adierazteko)

■ **Puntuazio markak** ondo baliatu.
■ **Hizkuntza baliabide aberatsak** baliatu (matematika hiztegia, terminologia, sinboloak, ikurrak...)
■ **Hizkuntza zehatza eta zuzena** erabili (ortografikoa, gramatikala, esaldien egiturak...)

**Artikuluaren zirriborroaren esteka hemen txertatu:**

| | |
|---|---|
| **Artikuluaren zirriborroaren esteka** | |

## 9. EDIZIOA. NOLA ADIERAZIKO edo EDITATUKO DUGU?




- **Baliabide digital bat baliatu** artikulua editatzeko; Canva.com adibidez. Horretarako aukeratu bilatzailean artikulua hitza eta eredu egoki bat aukeratu.
- Edizio ezaugarriak errespetatzen ahalegindu:
  - Letra mota
  - Letra tamaina
  - Letra estiloa
  - Lerroartea
  - Marjinak
  - Lerrokatzea eta paragrafoen antolaketa
  - Paragrafoen arteko tarteak
  - Azpigaiak
  - Buletak
  - Argazki eta irudien integrazioa...

**Txertatu canvan editatutako artikuluaren esteka hemen:**

| | |
|---|---|
| **Editatutako Artikuluaren esteka** | |

## 10. EBALUAZIOA. NOLA EGINGO DA EBALUAZIOA? ○

Artikulua SAIOKAko errubrika bitartez ebaluatuko da